

2016 LEHENTASUNAK:
AURREKONTUAK ETA
GOBERNU PLANA



UHARTEKO UDALA

Uharteko bizilagunen gehiengoak aldaketa bozkatu zuen. Udaletxea beste modu batera gobernatu zedin nahi zuten eta lehentasunak urteetan zehar izan direnen desberdinak izatea. Ekainaz geroztik, aldaketak egon dira forma eta edukietan, nahiz eta oraindik ere lan asko dugun egiteko eta asko hobetzeko. Horregatik, legegintzaldiko lehenengo aurrekontuaren lanketak ere desberdina izan beharko lukeela pentsatu dugu.

Teknikoki, aurrekontu bat sarreren aurreikuspen soil bat da, haiekin gastu batzuk finantzatzea aurreikusten dena. Aurrekontuarekin batera onartzen den Langileen Plantilla Organikoan dauden udal langile multzo baten bidez exekutatuak izango diren gastu batzuk.

Politikoki, urte baterako gobernuaren programa bateko adierazpen ekonomikoa izan liteke. Kasu honetan, hiru udal taldek partekatutako gobernuko programa baten 2016rako lehentasunak: EH Bilduk, Geroa Baik eta Cambiando Huarte / Uharte Aldatuzek.

Hala ere, justizia sozialetik uhartetarren gehiengoaren beharrak ahalik eta egokien artatzea nahi dugunez eta ez tramite bat gainditzea, aurrekontuaren elaborazioa elkarrekin batera hausnartzen hasteko aukera on bat dela uste dugu. Aukera bat, guztion artean legegintzaldi guztian zehar ekintza politikoa bideratuko duten lehentasunak ordenatzeko.

Gobernu taldetik proposamen ireki hau landu dugu eta orain herri guztiarekin kontrastatu eta eztabaidatu nahi dugu.

EKINTZA ESTRATEGIKOAK

Bide politikoaren aldaketa bat suposatzen duten eta aurrekontuko partida askoren gain eragina duten udal gobernuek planteatzen dituen ekintza estrategikoak

1. AREACEAREN DISOLUZIOA

Higiezinaren boomaren urteak amaituta, Kudeaketa Urbanistikoaren Udal Enpresaren errealitatea, ibilgetu ondare garrantzitsu bat eduki arren, 10 milioi euroko zor batez itota zegoela zen, eta haren jarduera nagusia Itaroako instalazioen kudeaketa zen (Spa sport eta Izotz pista). Egoera horren aurrean, 2015 urtean zehar udaletxeak bi jokoera garrantzitsu burutu ditu: Alde batetik, Areaceako zorraren kargu egin da, kredituaren interesak murriztuz eta 2,5 milioi euro amortizatuz. Eta bestetik, bere instalazioen erabilera zabaltzeko bideragarritasun ekonomiko eta sozialeko ikerketa bat burutzen ari da: izotz pista, SPA, gimnasioa eta Estetika Zerbitzua. Cinfak Ollokilandan erabilitako orubearen salmentatik lortutako sarrerekin, Areaceako zorra murriztea suerta daiteke.

2. ZERBITZU PRIBATIZATUEN BERRESKURAPENA

Gobernu taldea Kultura eta Berdintasuneko zerbitzuen kudeaketa zuzena bere gain hartzea ikertzen ari da, eta baita enpresa pribatuek kudeatutako hainbat zerbitzu progresiboki berreskuratzeko aukera ere, enpresa publiko municipal baten bitartez; laster batean amaituko diren kontratuen aurrean. Izotz pista, SPA, Haur Eskola, Garbiketak... esate baterako. Modu honetan, zerbitzuen kalitatea eta kontrol publikoa hobetu litezke, eta baita Uharteko pertsona langabetuentzat enplegu iturri garrantzitsu bat sortu.

3. GASTU SOZIALEAN INBERTSIOA

Gastu soziala gobernu berriaren lehentasun bat da, baina Uharteko apustua Gizarte Zerbitzuak hobetzeari dagokionez, traba garrantzitsu baten aurrean dago: Uharteren esfortzu ekonomiko asko Mankomunitatean (Uharteko-Esteribar) desegiten dira, errealitate soziologikoak hain desberdinak izatean eta ondorioz bi herrien beharrak. Efectiboki burututako zerbitzuak eta kostuen banaketa Uharterentzat konpentsatu gabeak daude.

Egoera horren aurrean, Nafarroako Gobernuarekin jada lanean gabiltzan bi hipotesi sortzen dira 2016rako:

- > Uhartek bere Gizarte Zerbitzuen Arloa antolatzea bere beharrei modu errealean erantzunez.
- > Mankomunitatean jarraitzea, betiere honek Uhartek haren bizi-lagunei emandako arreta hobetzeko egindako apustua onartzen badu bere osotasunean.

Gizarte Zerbitzu Arloan proposatutako ekimen berriak:

- > Kirola mediku preskripzioagatik.
- > 3. adineko beharren ikerketa. Programa berriak.
- > Larrialdi sozialerako hainbat etxebizitzaren eskaintza: ordenantza-ordenazioa.
- > Etxegabetze protokoloa. Etxegabetze libre herria. Uharteko bankuekin esku-hartzeak.
- > Baratza sozialak protokoloa.
- > Nazioarterako elkartasun aktiboa.
- > Pertsona migratzaileentzako ekintzak.

EKINTZA ESTRATEGIKOAK

Bide politikoaren aldaketa bat suposatzen duten eta aurrekontuko partida askoren gain eragina duten udal gobernuek planteatzen dituen ekintza estrategikoak

4. HERRIKO ZERBITZU BERRIEN BERRANTOLAKETAK ETA SORTZEA

Udal gobernua hainbat udal zerbitzuen berrantolaketa prozesu bat burutzen ari da, bere eraginkortasuna handitzeko eta herritarrekiko zerbitzua hobetzeko:

- Patronatoaren eraldaketa kiroleko Udal Zerbitzura eta bere barneratzea udal egituran, bere autonomia mantenduz, baina bikoiztasunak ezabatuz eta pertsona erabil-tzaileen parte hartzea handituz.
- Nagusiaren ordezkapena eta udaltzain taldearen berran-tolaketa.
- Zerbitzu Sozialen Mankomunitatearen berregituraketa, Uharteko bizilagunek zerbitzu hobea izan dezaten.
- Zerbitzu administratiboaren berrantolaketa. Jadanik erre-gistro bakarretik hasitako ibilbidea errenta aitortpenen kudeaketarako leihatila bakarrerantz, eta artatze telema-tikoa.
- Udal buletin informatzaileen berreskurapenaren bi-dez, gardentasuna eta informazioa handitzea eta web orrialdearen garatzea.

5. TRANTSIZIO ENERGETIKOA

Arlo energetikoan, ingurumen jasangarritasunarekiko apustua:

- Entitate akademiko ezberdinen arteko kolaborazioare-kin, udal instalazioen ikuskaritza energetiko progresiboa.
- Kontsumoen arrazionalizaziorako, ondorioen aplikazio progresiboa.
- Energia berriztagarrien erabileraren ezarpena.

PARTE HARTZE AUKERA AURREKONTUEN ONARPENA

Aldaketaren aurrekontuak desberdinak izan behar dute edukian eta formetan. Aspektu bat zein bestea, parte hartzearen ikuspegitik aztertu behar dira.

Uhartetarako udal errealitate ekonomikoa ezagutzeko eskubidea dute:

- > Udal gobernuak ezin du libreki erabaki burutu nahi dituen gastu eta inbertsioak. PPren Aurrekontuaren Egonkortasun eta Jasangarritasun Finantzarioaren Legeak Uharterentzat gastuetan tope bat finkatzen du, aurreikusitako sarrerak zeintzuk diren independenteki. **2016 urtean Uharterentzat baimendutako gastuen muga ez da 6,3 milioi eurotara iristen.**
- > Bestalde, gastuen %85a lehendik konprometitua dago. Gobernu talde batek duen eragiteko gaitasuna partida oso garrantzitsuetan, hala nola, pertsonala, kontsumo eta mantentze lan ezberdinak eta ondasun eta zerbitzuak, oso mugatua da.
- > Areaceatik eratorritako zorrak %110eko zorpetzean kokatu gaitu. Egoera horretan, inbertsiorako gaitasuna ia hutsa da (280.000 euro).

Ekintzekin erakutsi behar da herritarrek erabakietan parte hartzen baimentzeko borondatea. Uharten orain arte erabili ez diren tresnak proposatzen ditugu:

- > Buletin informatzaile honen eta web orrialdean 2015eko kontu erreal eta osoen emaitzei dagokien argitaratzea (errealitate osoa kontuan izanda, Areacea eta aurreko legegintzalditik eratorritakoa barneratuz: Areaceako meandroa, Ollokilandako jabeen kuoten itzulpenak, etab...). Eta baita aldaketaren aurrekontuetarako lanketa, eztabaida eta erabakirako egutegi baten ezarpena.
- > Kultur etxean bizilagunen asanblada bat, gobernu taldearen proposamena eta herritarren aldetik proposamenak emateko epealdi eta formula baten ezarpena azaltzeko.
- > Aurrekontuko partida batzuk edo harekin erlazioatutako aspektu batzuk ezartzea, bozkatze/inkestarako objektu izan daitezkeenak eta edonork dagokion erabakietan parte hartzeko formula bat bideratzea (web orrialdetik edo fisikoki, inkestak jasotzeko lokal zehatz batean kokatutako hautetsontzi bat edo gehiagoren bidez).

Adibidez: • *¿Non kokatuko da artifi?* • *Festetan behiak bai edo ez.* • *Bideak oinezkoentzat egitea / kale batzuen helbideen aldaketa.*

EKIMEN ESANGURATSUAK EDO INBERTSIO POSIBLEAK ARLOKA

KIROLA

- 1 Udal Zerbitzuan Patronatuaren eraldaketa.
- 2 Errentagarritasun sozial handiagorako Ugarrandia eta Itaroaren arteko elkarrekintza.
- 3 Kirol eskaintza areagotzea.
- 4 Klub eta kirol eskolekin lankidetzeta.
- 5 Eskolako kirol anitzeko pistaren ixtea.
- 6 Belar naturaleko zelaiko aldagelak.
- 7 Belar naturaleko zelaia erabiliz, igerilekuko zonalde berdearen areagotzea.
- 8 Haurren igerileku ondoko zonalde berdean behin-behineko itzal artifizialaren aukera.
- 9 Igerilekuetara terrazatik sarbidea (bazkideen erabilera, janaria eramateko aukera, tabernatik edaria).
- 10 Igerilekuetan erretegiak.

ITAROA SPA SPORT ETA IZOTZ PISTA

- 11 Pertsona harpidedunentzat instalazioen erabilera lotura. Inbertsioak (Areacearen gain kargura):
- 12 > Kirol ekintzen areto berriaren prestakuntza.
- 13 > Espazioen banaketa termikoa.

HIRIGINTZA, TRAFIKOA ETA INGURUMENA

- 14 Udal Planaren jarraipen berrorientatua.
- 15 Villavesaren ibilbide aldaketa.
- 16 Antzinako eskolen plaza eta patio komunikazioa.
- 17 Alde zaharrean oinezkoentzako gune partziala eta trafikoko aldaketak.
- 18 San Francisco - Ferial kalea oinezkoentzat bide egitea.
- 19 Plazan komunak.
- 20 Kalean haur parkeen zorua ezartzea.

- 21 Ugarrandia bajeak, hezetasunak
- 22 konpontzeko inbertsioak.
Kale eta espaloien egokitze eta zolaketa.
- 23 Trafiko seinaleen mantenua. Herriko sarreran euskarri berriak.
- 24 Uharte sarrera/irteeran (5 puntutan) seinale berriak jartzea.
- 25 Abiadura-neurgailu eramangarrien birkokatzea.
- 26 Urdineko zuhaitzaren birgaitze eta birkokapena.
- 27 Herri adierazpenen panelak.
- 28 Herriko hornigarriak.
- 29 Oihanen basoko ekintzak.
- 30 Kontsumo energetikoko ikerketak.
- 31 Senidetzeak (ikasleen arteko trukaketak eta festetan bertako talde folklorikoen parte hartzea) (Uharteari hurbiltzen proiektua).
- 32 Aterpetxearekiko hausnarketa.

KULTURA

- 33 Zerbitzuaren munizipalizazioaren azterketa.
- 34 Mankomunitate tailerrak eskuratzea eta indartzea.
- 35 Udako zinema kale antzerkiagatik ordezkatzeta. Gau ikuskizuna.
- 36 Kultura taldeei dirulaguntzak.
- 37 Inauteriak, udaberri jokoak, Olentzero, desfile+ abesbatza ikuskizuna + gimnasia erritmikoa...
Festak:
- 38 Behiak bai? Behiak ez?
Kultur Etxean inbertsioak:
- 39 LED argiak.
- 40 Jubilatuen klub atea.
- 41 Klimatizazioko telekudeaketa.
- 42 Uharte Fundazioaren Urteurrena.
- 43 CACHen espazio eszeniko baten prestakuntzarako hausnarketa elkarbanatua.
- 44 Teilatuko toldoak (itoginei irtenbide ematea).
Liburutegia (Kudeaketa Nafarroako Gobernuak):
- 45 Azpiegitura: espazioaren falta nabarmena.
- 46 Pertsonala: pertsonalaren falta nabarmena.
- 47 Liburuaren eguna: Ipuin kontaketa.
- 48 Apal berriak.

GAZTERIA

- 49 2015 geroztik beste pertsona bat (Asteburuko errefortzua, ekintza gehiago).
- 50 Gazteekin prozesu parte hartzaileak.
- 51 Koadrilekin lanak(Eraiki).
- 52 Artifiren kokaleku aldaketa: hainbat balizko kokapen.

BERDINTASUNA

- 53 Berdintasunaren Teknikaren kontratazio prozesua.
- 54 Equalaren lanaren analisia.
- 55 Transbertsalitatea: Jarduerak eta ekintzak: sexu-eraso posterrak, pankarta...

EUSKARA

- 56 Ikerketa soziolinguistikoa.
- 57 Eskolatik kanpo euskararen erabilpenari bultzada (Ikasle euskaldun eleaniztunak sortzen).
- 58 Ikasleen elkar trukaketa beste Uharteekin.
- 59 Euskarazko ipuinen jaialdia.

ZERBITZU OROKORRAK

- 60 Zerbitzuaren berregituraketa.
- 61 Arreta Zerbitzu Bateratua eta Errenta Aitorpenen Kudeaketa, irabazien araberrako ordainketa bidez.
- 62 Herritarren Arretarako Lehiatila bakarrerantz urrats eraginkorrak eman, tramite elektronikoen bidez.
- 63 Komunikazio, gardentasun eta parte hartzerako leihoa ireki, egun indarrean dagoen legediari jarraiki, Udalaren web orri berrian. Aldi berean, Uharte Ezagutu atariak herritarren parte hartzerako tresna bilakatuko da, udal buletinaren berreskurapenarekin batera eta Udalaren sare sozialetako profilak garatu eta kudeatzeaz gainera, herritarrekiko hartu emana zuzena izan dadin.

HAUR ESKOLAK

- 64 Zerbitzua udalaren esku uzteko ikerketa.
- 65 Leihoak.
- 66 Ontzi-garbigailua.
- 67 Argiak.

AMA ZURIAREN ESKOLA

- 68 LED argiak.
- 69 Sarbide orokorreko ateen itxuraren ipintzea.

AURREKONTUEN ONARPENEN PROZESU PARTE HARTZAILERAKO EGUTEGIA

Martxoak 16

Gobernu taldearen aurrekontu proiektuaren zirriborroaren onarpena.

Martxoak 21

Zirriborroa oposizioari ematea.

Apirilak 4

Udal arloetako arduradunekin bilera.

Apirileko 4-10 astea

Dokumentu honen etxez etxeko banaketa eta herritarrei hitzaldirako deialdia.

Apirilak 14

Batzar informatzailea:

- Gobernu taldearen aldetik 2016rako aurrekontuen proposamena azaltzeko.
- Aurrekontuen proposamen kuantifikatua.
- Edukien proposamena.

Apirilak 14-22

Batzarraren ondoren, apirilak 22ra arte herritarren ekarpenei irekiera. Ekarpenen azterketa, ondorioak eta itxiera.

Apirilak 28

Udal plenoan 2016ko Aurrekontuen onarpena.



APIRILAK 14

HERRI BATZARRA:

Udal Gobernuaren 2016ko aurrekontuen
proposamenaren aurkezpena
KULTUR ETXEAN / 19:00ETAN

AZALDU
UHARTE,
GUZTION ARTEAN

